

56 egunez egun

2014ko ekaina




**Loinatz jaietan murgilduko da
Beasain ekainaren 8ra bitartean**

**2 hitzaurrea 3 Igartza 4 festak 5 euskara 6-7 parte hartze prozesuak
8 ongizatea 9 hirigintza 10-11 laburrak 12 elkarritzeta**



koldo agirre > udaletik



Gozatu Loinatz jaiak!

Ate joka ditugu aurtengo Loinatz jaiak eta festa giroa ez da faltako herriko kaleetan. Jaietan murgildu arren, ez gara esku artean ditugun proiekuez ahaztuko.

Udalaren oinarrizko lan-ildoetako bat da herritarren parte hartzea sustatzea udalaren kudeaketan herritarren implikazioa areagotuz. Auten ere horretan gaibiltza eta martxan ditugun hiru prozesu aipatuko ditugu: I. Berdintasun Plana diseinatzeko, gazteen lokalaren prozesua eta Ezkiaga auzokoa.

I. Berdintasun Plana diseinatzeko prozesua badoa aurrera eta ekainaren amaierarako lehen zirriborroa izango dugu esku artean. Ondoren Emakunderekin kontrastatu beharko dugu eta azkenik Udalbatzan onartu. Izango dugu zer egi-na Plana onartu eta gero ere.

Gazteen lokalaren prozesua sakona eta

mamitsua ari da izaten. Herriko egungo errealitatea ezagutzen ari gara, gaiarekin zerikusia duten guztien ikuspuntutik. Bi arlo landu dira, segurtasuna bermatzeko gutxieneko baldintzak eta bizikidetza egokirako gutxienekoak. Implikatu guztien parte hartza eskertu nahi dugu eta izan duten errespetuzko jarrera txalotu.

Ezkiagako prozesuan, auzotarrak izan dira beraien auzoaren garapenaren protagonista. Auzoak hartu duen erabakia laster ezagutuko badugu ere, egin diren proposamen guztiak lan egiteko tresna izango dira Udalarentzat.

Hona ekarri nahiko genuke, bestalde, Udalak enpleguarekin hartu duen compromisoa. Gaur egun bizi dugun egoera ez da xamurra, horregatik, lehentasuneko beste lan ildo bat lanpostuak sortzea da. Horretan hasi ginen iaz eta bide berdinetik jarraituko dugu.

Azkenik, hartu dezagun festarako tardea ere. Udaletik Loinatz jaietan ikurrinak balkoieta jartzera gonbidatzen zaitutegu. Gozatu jaiak familia, lagun eta inguruoekin!

Estamos a las puertas de las fiestas, y estamos seguros de que no faltará ambiente festivo en nuestras calles. Es hora de hacer un paréntesis en el trabajo diario, pero no nos olvidaremos de los trabajos y proyectos que tenemos entre manos. Uno de los objetivos del Ayuntamiento es fomentar la participación ciudadana e implicar más a la ciudadanía en la gestión del Ayuntamiento. Ejemplo de ello son los procesos que se están realizando en el barrio Ezkiaga, el proceso de los locales juveniles y el diseño del I. Plan de Igualdad.

También queremos reseñar el compromiso que tiene éste Ayuntamiento con el empleo. No es fácil la situación que vivimos, por eso, nuestra prioridad es crear empleo, y siguiendo los pasos del año pasado, este año también seguiremos creando puestos de trabajo.

Para finalizar, tomemos tiempo para disfrutar de las fiestas. Desde el Ayuntamiento os queremos invitar a colocar la ikurrina en los balcones y ventanas.

Disfrutar de la fiestas!

> inuesta Zer iritzi duzu azkenaldian egindako obrez?



Eduardo Pascual



Micaela Pascual



Mikel Lorenzo



Esteban Lasa kale inguruan bizi naiz eta ondo iruditzen zait bi norantzatan jartzea, nahiz eta obrak egiten aritu zirenean, aparkatzeko arazoak izan ziren. Bidegorria eta Barandiaran plaza egitea, beharrekoak ez baziren ere, oso ondo iruditzen zaizkit. Honelakoekin erraztasunak jartzen dituzte jendea ibil dadin.

Los últimos trabajos del bidegorri me parecen muy bien. Ando mucho en él con mi novio y son lo bastante espaciosos como para que podamos ir juntos tranquilamente. Creo que están en muy buen sitio y la unión de los bidegorris facilita andar en bici. Desconozco qué obras están haciendo en la calle Esteban Lasa y en la plaza Barandiaran.

Barandiaran plaza inguruan bizi gara eta nire usteaz basen garaia plaza horri txukundu bat emateko. Utzi xamar eta zizkin zegoen parkea. Obretan zegoen bittartean kristalak eta baldosak egon dira une batzuetan, baina itxura polita ari da hartzen. Gernika pasealekuko frontoia bakarrik zegoen orain arte estalita eta ongi etorriko da beste leku estalit bat.

Aldabek kudeatuko du Igartza

Aldabe Zerbitzu Turistikoak Kooperatibak irabazi du Igartza Monumentu Multzoa kudeatzeko lehiaketa. Udalak eta Aldabek eskuz esku, elkarlanean, lan egingo dute datozen bi urteetan.

Igartza Monumentu Multzoari norantza berria eman nahian, baldintza plegu berriak argitaratu zituen otsailaren Udalak. Lehiaketara zazpi enpresa edo talde aurkeztu dira. Horietako bi beasaindarrez osatuta zeuden eta beste pare batean beasaindarrek zeuden tarte-an. Azkenean, Aldabe Zerbitzu Turistikoak Kooperatibak irabazi du lehiaketa. «Turismoan eta komunikazioan eskarmentua dute-nak dira», dio Garbiñe Zurutuza zinegotziak. Zeraingo eta Segurako turismo eskaintza kudeatzen dute, adibidez. «Orain, herriko mugimendu eta sare kulturalean parte hartze zuzena izaten ari dira, Igartzako Mahaian esaterako». Gaineratu du. Bi urterako kontrataua sinatu dute Udalak eta Aldabek.

Elkarlana eta jarraipena

Era berean, kudeaketa koordinatu baten aldeko apustua egin du Udalak jarraipen batzordearen bidez. «Elkarlanean oinarritutako kudeaketa izango da Aldaberekin egingo duguna. Igartzako agen-

dan herriko agenda barneratuko da eta alderantziz, herrian ere Igartza indarzen saiatuko gara guztiion artean. Azken finean, Udalarentzat azpiegitura bat

tan aldi berri honetan: errotan informazio gunea eta denda jarriko dituzte; bertako eta inguruko artisaukin tайлerrak antolatuko dituzte; eta baratza ere biziberritzeko asmoa dute.

El conjunto monumental de Igartza será gestionado por la cooperativa Aldabe Zerbitzu Turistikoak. El Ayuntamiento y la citada empresa colaborarán los dos próximos años en esta tarea.

Aldabe Zerbitzu Turistikoak Kooperatiba ha resultado ganadora del concurso al que se presentaron otras siete empresas. Tiene experiencia en el sector del turismo y comunicación. Para contactar el teléfono de la empresa Aldabe es el 605 771 881. Y la página web, www.igartza.net.

El 21 de junio se celebrará el día de puertas abiertas para dar a conocer a los y las beasaindarras el conjunto monumental. Habrá visitas guiadas teatralizadas y talleres.


Unitate didaktikoak

- > Lehen Hezkuntzako haurrentzako unitate didaktikoa bukatzean dago. Igartzako bisiak protagonista nagusia haurra bera izango da.
- > DBHko ikasleentzako unitate didaktikoa egiteko lehiaketa ateratzeko asmoa du Udalak.
- > Están finalizando la unidad didáctica de Educación Primaria. Los y las niñas serán protagonistas principales en las visitas de Igartza.
- > El Ayuntamiento sacará a concurso la unidad didáctica para el alumnado de ESO.

gehiago da Igartza». Aldaberekin harremanetan jartzeko bideak hauek dira: 605 771 881 eta www.igartza.net.

Ate irekiak

- > Ekainaren 21ean, larunbata, herriarrek Igartza ezagutzeko aukera izango dute doan. Bistaldi guidatuztak eta tailerrak egongo dira.



Kudeaketa berria

Bisitariei eta herritarrei zerbitzu zuzena eta bertatik bertakoa emango zaie. Hainbat aldaketa izango dira kudeake-

Loinatz jaiak gozatzeko prest

Azkenean iritsi dira Loinatz jaiak. Udalak, elkarrekin eta herriko osatutako egitaraua bete-betea dator. 25. aldiz, Marik emango die Loinatz jaiei ongi etorria.

Prest dira Loinatz jaiak. Ekainaren 8ra bitartean, festa giroa izango da nagusi herriko txoko desberdinetan. Loinatz jaietako batzordean herritar ugarik parte hartu du, eta Udalak festen antolaketan herritarren parte hartzea eskerdu nahi du. Azpimarragarria da, Maren jaitsierak 25 urte beteko dituela.

Kartela

Mikel Cerdeira beasaindarra irabazi du Loinatz jaietako kartel lehiaketa. 7 eta 15 urte bitarteko mailan, berriz, La Salle-San Jose ikastetxeko Eneritz Martin, Naroa Goitia, Cristian Gorigolzarri, Andre Ruiz eta Unai Calvok.

Erraldoien eta buruhandien konpartsak

Udalak bi erraldoi berri egiteko konpromezua hartu zuen aurrekontuetan eta Loinatz jaietan aterako dira lehen aldiz. Hori dela eta, Ekaitz konpartsako gazteak buru belarri aritu dira lanean dantza berriak ikasten.

Umeak eta gaztetxoak

Eskaintza zabala antolatu da. Barandiaran plazan lehenengo larunbatean eta koadrilen egunean gaztetxoek jolasteko eremu berezi bat jarriko da: jumping-arekin, giza-mahai futbolarekin, puzgarietkin... AisiHezik umeentzako jolasak eta ludoteka ibiltaria ere eskainiko ditu.



Helduen danborrada

Elkarrekin proposatuta eta danborrada indarberriko helburuarekin, ordutegian aldaketa dago eta aurten arratsaldean izango da.

Musika

Gustu guztiarako musika egongo da jaietan: herriko taldeez gain, Hesian, Zea Mays, Ingo al deu?, Matxura, Gozo-gozo taldeak eterriko dira.

El ambiente festivo invadirá todos los rincones de Beasain hasta el 8 junio. Han sido muchas las personas que han participado en la organización del programa festivo y el Ayuntamiento muestra su agradecimiento a todas ellas. Es de reseñar que la bajada de Mari cumple sus bodas de plata.

Cartel

El ganador del concurso del cartel oficial de las fiestas ha sido el beasaindarra Mikel Cerdeira.

Comparsa de gigantes y cabezudos

La Comparsa Ekaitz presentará los dos nuevos gigantes que ha adquirido el Ayuntamiento. También presentarán los nuevos bailes que han preparado.

Niños, niñas y jóvenes

En la renovada plaza Barandiaran se ubicará una zona especializada para niños y niñas y adolescentes el primer sábado y el día de las cuadrillas. AisiHezik también organizará juegos infantiles y ludoteca itinerante.

Tamborrada

Se ha cambiado el horario de la tamborrada de adultos a propuesta de las sociedades, con el objetivo de revitalizarla.

> ekainak 8, Giza Katea

> 8 de junio, cadena humana

> Gure Esku Dago ekimenak protagonismo berezia izango du aurten, festetako azkeneko igandean, ekainak 8, erabakitzeko eskubidearen aldeko Durango eta Iruñea bitarteko giza katea egingo baita. Mila beasaindar biltzea da antolatzaileen erronka.

> Bezeran, ekainaren 7an, Kataluniako Colla de Sant Vicenç dels Horts herriko Castellers-ak izango dira giza gazteluak egiten.

> Ekainaren 8an, 12:00etatik 12:30era egingo da giza katea, baina 10:00etarako geltoki inguruan izango den informazio gunera azaltzeko deia egin dute antolatzaileek.

> Festa nagusia Lazkaon izango bada ere, herriko festak direnez, Beasainen bertan, 14:30ean bazkaria egingo da eta 17:30ean Txertubi taldearekin erromeria. Metroak eta bazkarirako txartelak aurretik erosi behar dira Erlou, Basakana, Arrano, Titi-Tta, Batzoki, Irizar eta Antzizar tabernetan.

> La iniciativa Gure Esku Dago será protagonista en el segundo fin de semana de las fiestas de Loinatz, ya que el 8 de junio se hará la cadena humana entre Durango y Pamplona, a favor del derecho a decidir. El reto de los organizadores es juntar mil beasindarras.

> El 7 de junio, el grupo de Castellers (castillo humano) del pueblo Colla de Sant Vicenç dels Horts de Cataluña estará en Beasain.

> El 8 de junio, entre 12:00 y 12:30, se hará la cadena humana. Los asistentes deberán estar para las 10:00 de la mañana en el punto de información de la estación de tren.

> Aunque la fiesta principal será en Lazkao, en Beasain se ha organizado una comida popular (14:30) y una romería con el grupo Txertubi (17:30). El metro para la cadena humana y los tickets para la comida están a la venta en los bares Erlou, Basakana, Arrano, Titi-Tta, Batzoki, Irizar y Antzizar.

Langabetuentzat alfabetatze ikastaroa doan udal euskaltegian

Ekainaren 26tik uztailaren 23ra bitartean, langabetuentzako alfabetatze ikastaroa antolatu du Beasaingo Udal Euskaltegiak. 80 orduko ikastaroa izango da, goizez; dohainik. Gainera udako ikastaroak ere antolatu ditu euskaltegiak. Matrikula ekainaren 9tik 19ra egin behar da.

Udan ere euskara ikasteko eta sa-kontzeko aukera eskainiz dator Udal Euskaltegia. Aurret dena den, berrikuntza batekin dator: langabetuentzako alfabetatze ikastaroa. «Azken bolada honetan, hainbat lanpostu deialdi izan dira udaletxeen eta horietan, noski, euskara maila jakin batzuk eskatzen ziren. Konturatu gara kasu askotan aurkeztu direnak euskaldun zaharrak izanda, ezin zutela beren ezagutza kredita, nahiz eta erabileraen trebeak izan eta ahozko komunikazioan inolako arazorik ez izan», dio Mari Paz Martin, Udal Euskaltegiko zuzendariak.

Arazo horretatik abiatuta, Udalak, udal euskaltegiaren zerbitzuaz baliatuz, langabetuentzako doako ikastaro bereziak antolatu ditu udan. 80 orduko alfabetatze ikastaroa izango da.

El Ayuntamiento de Beasain y el euskaltegi municipal han organizado un curso de alfabetización en euskara, gratuito, dirigido a personas en paro.

El curso se impartirá entre el 26 de junio y el 23 de julio próximo. El curso será gratuito, se impartirá a las mañanas y constará de 80 horas lectivas.

Una de las razones para ofrecer este

curso ha sido que «al haber mucha gente que siendo euskaldunes y teniendo facilidad de expresarse en esta lengua, no podían acreditar su conocimiento ante las distintas ofertas de empleo ofrecidas por el Ayuntamiento, al no tener título alguno», recalca la directora del Euskaltegi, Mari Paz Martin.

El plazo de formalización de la matrícula se abre el 9 de junio y finaliza el 19 del mismo mes.

También se ofrecen cursos de euskaldunización (niveles 1, 2 y 3) y Cursos de preparación de exámenes de EGA, HABE y perfiles lingüísticos.

> udako ikastaroak

> oferta de cursos de verano

Ikastaro eskaintza

- > Euskalduntzea (1., 2. eta 3 mailak), EGA, HABE eta Hizkuntza Eskakizunetako azterketak.
- > Langabetuentzat alfabetatze-ikastaroak. Doan. Berria!!
- > Ekainaren 26tik uztailaren 23ra bitartean eta irailaren 3tik 30era (goizez).

Matrikulatzeko epea

- > Ekainaren 9tik 19ra bitartean.

Bulego ordutegia

- > Goizez: 10:00-13:00.
- > Arratsaldez: 16:00-18:00.

Diru-laguntzak

- >%60tik %90 bitarteko matrikula itzultzea.



Oferta de cursos

- > Euskaldunización (1º, 2º y 3º niveles), Cursos de preparación de exámenes de EGA, HABE y Perfiles Lingüísticos.
- > Cursos gratuitos de alfabetización para parados. **Novedad!!!**
- > Del 26 de junio al 23 de julio y del 3 al 30 de septiembre (mañanas)

Plazo de matriculación

- > Del 9 al 19 de junio.

Horario de oficina

- > Mañanas: 10:00-13:00.
- > Tardes: 16:00-18:00

Subvenciones

- > Devolución de entre el 60% y el 90% de la matrícula.



• • Ikastaro amaierako txangoa

Ekainaren 14an egun osoko irteera antolatu du Udal Euskaltegiak. Oñatioko Arrikutzeko kobazulorua eta Arantzazuko santutegira joango dira bisitaren. Irelkia da eta ikasle eta mintzalagunez aparte, beste edozein herritarrek har dezake parte, euskaran hitz egiteketan. 6 euro ordaindu beharko da. Izena emateko deitu 943 028100 telefono zenbakira edo mezua bidali euskaltegia@beasain.netera.

Udala herritarrekin batera lanean

Herritarrekin eta herritarrentzat lan egin nahi du Beasaingo Udalak. Izen ere, herritarren parte hartza tresna edo bitartekoak dira udaleko politikak hobetu, garatu eta herritarrenak izateko. Legegintzaldian zehar hainbat parte hartze prozesu burutu dira eta burutzen ari dira Beasainen.

Beasaingo Udalak parte hartzean sakontzeko bidea hasi zuen lege-gintzaldi hasieran; «gaiari bere tokia eman genion, Parte hartza, Berdin-tasuna, Migrazioa eta Hezkuntza batzorde informatiboa sortuz eta gaiari arduradun politiko bat jarriz», dio Zezia Herrador Parte Hartze zinegotziak.

Udalaren kudeaketan herritarrek ere parte har dezaten ahalegintzen ari da Udalak, parte hartza era kontzientean bultzatzuz, «bide hori herritarrek herri-rekiko duten atxikimendua handitzeko bidea delako».

Gauzak horrela, Udalak parte hartze prozesu desberdinak jarri ditu abian, erabakiak herritarrekin batera hartu daitzekeela erakutsiz. «Adibide desberdinak aipatu ditzakegu: tabernetako terra-zent ordenantza, aurrekontuak, mugikor-tasunaren inguruko prozesua, sorkunta lokalena eta Errekarte eremuko proze-sua, bestekat Beste. Orain martxan ditu-gun Ezkiagako eta gazte lokalaren proze-suak eta I. Berdintasun Plana diseinatzeko prozesua ere ezin ditzakegu aipatu gabe utzi».

Udalak gustura dago prozesuek eman-

dako emaitzakin, «herritarren jarrera ona izaten ari da eta hasieran gaudela badakigu, bidea egiten hasi besterik ez gara egin. Oraindik berriak dira herra-torrentzat parte hartze prozesuak, horregatik orain arteko parte hartze proze-suetan parte hartu dutenei, egin duten ahalegina eskertu nahi diegu».

Norabide horretan jarraitu nahi du Beasaingo Udalak, «parte hartze kultura handitzu».



El Ayuntamiento de Beasain inició el camino de profundización en la participación ciudadana. El Ayuntamiento pre-tende que los y las ciudadanas partici-pen en la gestión del Ayuntamiento.

Para ello, se han puesto en marcha distintos procesos participativos, demostrando que la ciudada-nía puede ser partícipe de las decisiones.

Se pueden mencio-nar distintos ejemplos: La ordenanza de las te-rrazas de los bares, el presupuesto municipal, el proceso sobre la mo-vilidad, Errekarte...

Satisfecho con los resultados

Actualmente están en marcha los procesos del barrio Ezkiaga, el de los locales de los jóvenes y el proceso para diseñar el primer Plan de Igual-dad.

El Ayuntamiento se muestra satisfecho con los resultados obtenidos y seguirá profundizando en este camino, fomentando la cultura participativa.

> Ezkiagarako 120.000 euro > 120.000 euros para Ezkiaga

> Ezkiaga auzoko bizilagunak, beraien auzoan 120.000€ zertan inberti-tu erabakitzetan ari dira.

> Prozesu bi fasetan diseinatu da. Lehen fasean auzotarrek proposame-nak egiteko aukera izan dute eta Udalean 100dik gora proposamen jaso dira. Bigarren fasean hiru proposamen adostu ziren auzotarre-kin.

> Jaso diren proposamenen izaera desberdina izan da: irisga-ritasuna hobetzeko proposamenak, kale birmoldaketak, ar-giteria, txakurrak, Olaranen ingurukoak, aparkaleku eta tra-fikoarekin zerikusia dutenak eta baita hondakinen ingurukoak ere.

> Behin bozketa fasea pasata, ekainaren 10ean, asteartea, azken bilera bat burutuko da auzotarrei bozketaren berri emateko. Bilera hau, 19:00etan izango da Murumendi ikastetxeen.

> Las y los vecinos de Ezkiaga están inmersos en un proceso en el que están decidiendo cómo invertir 120.000 €

> El proceso se ha diseñado en dos fases. En la primera fase, las y los vecinos del barrio han tenido la opción de realizar propuestas. En total se han recogido más de cien. En la segunda fase, se han acorda-do tres propuestas.

> Las propuestas recogidas son de diferente carácter: propuestas para la mejorara de la accesibilidad, remodelación de calles, lumina-rias...

> El 10 de junio, martes, se celebrará la última re-unión para informar de los resultados de la votación. La reunión será a las 19:00 horas en el colegio Murumendi.

Tres propuestas a votar

- > Remodelación de la calle Zazpiturrieta, incluyendo carril bici.
- > Ascensor desde el frontón a la calle Mariarats.
- > Cubrir el parque Ezquierdi.

> Berdintasun plana > Plan de igualdad

> Berdintasunaren gaian sakondu beharra eta eremu honetan lan egiteko marko bat adostu beharraren ondorioz, Beasaingo Udalak Beasaingo Emakume eta Gizonen berdintasunerako I. Plana egiteko prozesua jarri zuen abian pasa den urtarilean.

> Prozesu honetan ahalik eta iritzi, ekarpen eta proposamen gehien jasotzeko, herriko eragile desberdinak, udal langilekin eta ordezkar politikoekin bilera desberdinak burutzen ari dira.

> Beasaingo argazki orokorra oinarri har-tuta, hurrengo lau urteetan lantzeko bost eremu nagusi identifikatu ziren apirileko bileran: kultur arloa eta emakumezko sortzaileen sustapena, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza, kirolean emakumezkoen erreferentzialtasuna lantzea, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan ematen den arreta eta lan-munduan benetako aukera berdintasuna lantzea.

> Ekainaren amaierarako plana bukatuta egotea aurreikusten du Udalak. Ondoren, Udalbatzak eta Emakundeak onartu beharko dute.

> El Ayuntamiento de Beasain puso en marcha el pasado enero el proceso para diseñar el Plan de Igualdad respondiendo a la necesidad de profundizar y consensuar un marco para trabajar en este ámbito.

> Se han celebrado distintas reuniones con diferentes agentes, trabajadores municipales y representantes políticos, con el objetivo de recabar distintas opiniones y propuestas.

Planaren zirriborroa

- > **Planak lehenengo zirriborroan 7 programa ditu.**
 - > **Udalari dagokiona: barne-antolaketa eta funtzionamenduari dagozkion ekintza guztiek biltzea.**
 - > **Indarkeria matxistari aurre egitea: arreta hobetzeko tresnai eta prebentzia eta tratu onak sustatzea.**
 - > **Aisialdia: kultura eta kirola ezberdindu dira.**
 - > **Jendartearren antolaketa erantzukidea.**
 - > **Ume eta gazteak: hezkuntza formal eta hezkuntza ez-formala.**
 - > **Balio aldaketa prozesuak: jendartean emakumezkoen zein gizonezkoen artean eman beharreko prozesuak genero rol tradizionaletan harago joateko.**
 - > **Hiri antolaketa genero ikuspegitik.**

> En la reunión de abril se identificaron cinco ámbitos a trabajar en los próximos cuatro años: Cultura y apoyo a la mujeres creadoras, Educación basada en la coeducación, la referencialidad de la mujer en el deporte, atención que se dispensa en casos de violencia contra las mujeres y por último, trabajar la igualdad en el ámbito laboral.

> Se prevé finalizar el trabajo para finales de junio. Por último tendrá que ser aprobado por el pleno del Ayuntamiento y Emakunde.

> gazteek erabiltzen dituzten lokalak > locales que utilizan los y las jóvenes

> Beasaingo gazte lokalen gaur egungo errealitatea ezagutzen ari da Udal prozesu honen bidez, gaiarekin lotura duten giztuen ikuspuntutik: gazteak, bizilagunak, lokalekin jabeak eta adin txikikoen gurasoak.

> Udalek lehen fasearen oso balorazio positiboa egin da. Errespetuzko jarrera izan dute parte hartzaileek eta bakoitzak bestearren lekuaren jartzeko ahalmena erakutsi dute.

> Bigarren fasean eragile guztiak elkarrekin egin dituzte bilerak. Balioan jarri nahi da eragile guztiak onartzen duten zerbaite dela gazte lokalek funtzi sozial bat betetzen dutela.

> Lokal gehienek ez dute arazorik sortzen baina arautegia behar dela adostu da.

> Bi arlo landu dira: segurtasuna eta bizikidetza bermatzea. Hau giztia betetzeko egokitzapen fase bat egongo da, eta udal gobernuak diru laguntza lerro bat martxan jartzea ere egoki ikusten du.

> Orain, udalean barne lanketa egiteko epea irekitzen da.

> Gracias a este proceso el Ayuntamiento está recabando información sobre la realidad de los locales que utilizan los y las jóvenes, desde el punto de vista de las personas implicadas: jóvenes, vecinos y vecinas, dueños de los locales y padres y madres de los menores de edad.

> Desde el Ayuntamiento se valora muy positivamente la primera fase del proceso, sobre todo por la actitud de respeto y empatía que se han mostrado en las reuniones.

> En la segunda fase se han realizado dos reuniones con todas las personas implicadas y en ellas se ha reconocido la función social que tienen los locales juveniles. La mayoría de los locales no ocasionan problemas pero se ve conveniente elaborar una normativa.

> Se ha trabajado en dos ámbitos: garantizar la seguridad y la convivencia. Para ello habrá una fase de adaptación y el gobierno municipal ve oportuno crear una partida de subvenciones.

> Ahora, se abre el plazo para trabajar sobre el tema a nivel interno en el Ayuntamiento.

Bi arlo

- > **Segurtasuna bermatzeko gutxieneko baldintzak adostu dira. (Adibidez, komuna izatea, aforo...)**
- > **Bizikidetza egokirako gutxienekoak landu dira, hala nola, zarataren neurketa edo espacio publikoaren erabilera.**





Formazio tailerrak martxan

Ongizate saila 'Gizarteratze Hezkuntza Proiektua: Inklusio Ibilbideak' deituriko proiektua ari da garatzen, gizartean gaur egun topatzen ditugun langabezi, formazio eta desokupazio beharrak asetzeko asmoarekin, gizarteratze eta laneratzeko prozesuak ahalbideratzeko helburuz.

Gizartean gaur egun topatzen ditugun langabezi, formazio eta desokupazio beharrak asetzeko asmoarekin abiatu da Ongizate sailaren proiektua. Lorratz elkartea bideratzen du eta Ainhoa Martin gizarte hezitzailaren esanetan, proiektuaren helburua, «pertsonei gizarteratze eta laneratzeko prozesuak ahalbideratzea da».

Proiektuak hiru ardatz nagusi ditu. Batetik, banakako jarraipenak edo elkarritzetak egiten dira, pertsona bakoitzaren egoera ezagutu eta eskaini daitekeen erantzuna aztertzeko. Bestetik, laguntza taldeak, non gai edo zaitasun konkretuak taldeka lantzen diren.

Eta hirugarrena, taldeko formakuntza da. «Pertsonen interesetatik abiatuta, taldeko formakuntzak ahalbideratzen dira». Kasu honetan, sukaldaritza eta etxeko konponketen inguruko tailerrak egiten ari dira bi hilabetez 36 lagun.

Tailerrekin bi helburu desberdin bete

nahi dira. Alde batetik, formakuntza bera beraien laneratze prozesuetan lagungarria izango da. Eta bestetik, «egunerokotasunean okupazio bat izateak ere lagungarria da eta beste pertsonenkin taldean egoteak norbanaren giza harremanak eta baliabide pertsonalak aberasten ditu».

Partaideak gusteria dabilta tailerretan eta «izugarrizko motibazioa azaildu dute».

El Departamento de Bienes-Tar del Ayuntamiento, junto con la asociación Lorratz, está desarrollando el proyecto 'Proyecto Educativo de Socialización: recorridos inclusivos', con el objetivo de fomentar la socialización e inserción en el merca-

do laboral. El proyecto tiene tres líneas: seguimientos personalizados, grupos de apoyo y formación de grupo, partiendo de los intereses de las personas. Así, 36 personas están realizando talleres de gastronomía y reparaciones domésticas, durante dos meses.

Los talleres pretenden cubrir distintos objetivos. Por una parte, recibir una formación que será de gran utilidad en su incorporación al mercado laboral. Por otra parte, también es de vital importancia tener una ocupación diaria porque al participar en los talleres junto al resto de las personas se enriquece el entorno personal de cada individuo.

Los y las participantes están mostrando su satisfacción por los resultados de los talleres. Todos los participantes han mostrado una gran motivación y esa disposición sale a relucir en el ambiente de trabajo.

Festetan tailerra
>Ekainaren 2an, (11:30-13:30),
Barandiaran plazan, haurrentzako
eta gaztetxoentzako
sukaldaritza tailerra
egingo dute.

Etxez etxeko laguntza / Servicio de asistencia en el hogar

Etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen du Goxara S.L. enpresak ezintasunen bat eduki eta norbere burua eta etxea zaintzeko gai ez diren hirugarren adinekoentzat. Arreta pertsonala eta etxeko garbiketa behar dituenak Udaleko Ongizate Sailera jo behar du, bertan baloratzen dute pertsona bakoitzak zein laguntza mota behar duen, eta zerbitzu horretatik zer behar duen. Minusbalaria edo dependentzia duten pertsonek ere eska dezakete zerbitzua.

El servicio de asistencia en el hogar ayuda a las personas que tienen alguna incapacidad, o no pueden valerse por sí mismas en su propia casa. En Beasain, dicho servicio lo gestiona Goxara S.L.. De todos modos, para recibir este servicio hay que acudir al Departamento de Bienestar y Servicios Sociales del Ayuntamiento. Los y las técnicos se encargarán de estudiar cada caso, y valorarán qué tipo de servicio se le concederá a la persona que lo solicite.

Herritarren ongizatea helmuga

Beasaindarren ongizatea helburu hartuta, Beasain erdigunetik autoak atera, eta oinezkoei eta bizikletei lehentasuna ematea da Udal Gobernu taldearen helburu nagusienetako bat.

Ildo horretan egin dira herrian azken aldian egin diren obra nagusiak.

El objetivo del Gobierno municipal es priorizar al peatón y el uso de la bicicleta. Ese es el fin de las obras que se han realizado a lo largo y ancho del pueblo. Por una parte el eje principal del carril bici estará terminado para finales de junio y por otra parte, se ha establecido el tráfico de vehículos en ambos sentidos en la cuesta de Esteban Lasa. La rehabilitación de los parques Ezquierdi y Barandiaran supone un paso más en priorizar el bienestar de las personas.



•• Parque de mayores

En el parque Ezquierdi del barrio Ezkia se ha habilitado un parque de mayores, para poder realizar diferentes ejercicios. En los paneles se explica cómo hacer cada ejercicio y los beneficios de cada uno.



•• Barandiaran parkea

Barandiaran parkea birmoldatzeko lanak bukatzeera daude. Obra nagusia parkea lekuz aldatzea eta estalzea izan da. Komunak ere jarri dira. Parkean zeuden zuhaitzak bere horretan utzi eta banku gehiago jarri dira. Libre geratu den guneari zein erabilera eman aztertzen ari da Beasaingo Udal.



•• Esteban Lasa, ambos sentidos

Acaban de finalizar las obras de remodelación en la cuesta de Esteban Lasa. La acera anexa al muro se ha quitado y la del lado de los portales se ha ampliado para mejorar el acceso y el tránsito de las personas. Por último se ha establecido la circulación de vehículos en ambos sentidos. De este modo se cierra la calle Lorategi a los vehículos, solucionando el problema de la Plaza Bideluze.



•• Bidegorri ardatza bukatzean

Ekainaren bukaerarako Beasaingo bidegorri ardatz nagusia bukatuta egongo da. Igartza eta kirolegia lotzen dituena bukatzean dago. Bidegorri zati horren ondorioz, zirkulazioa Trenbide kaletik bideratu da. Ezkiaga auzoan, CAFen sarrera nagusiaren inguruan egiten ari direna ere bukatzean dago. Aitor Larburu zinegotziak argitu duenez, Gernikako pasealekuko zatia geldituko da moldatzeko, autoentzat bidea itxi ondoren eremu osoa oinezkoentzat eta bizikletentzat geratuko da. Beasaindarrak txirrindua era-biltzera animatu nahi dituzte Udaletik.

Egutegi fiskala

Ondasun Higigaitzen gaineko Zerga ekainaren 30era bitartean ordaindu beharko da.

El Impuesto sobre Bienes Inmuebles se deberá pagar hasta el 30 de junio.

Aranzadi datuak biltzen

Udalak eta Aranzadik memoria historikoa berreskurtzeko sinatu duten hitzarmenaren harira, Jon Kortazar historialaria herritarren testigantza, dokumentua eta argazkiak biltzen ari da. Uztailaren 30era arte, astearte- eta asteazkenetan, (09:00-13:30 eta 16:00-18:30) Udaletxeko Gazteri sailean egongo da Kortazar herritarren ekarpenak jasotzea.



Con el objetivo de recuperar la memoria histórica, el historiador Jon Kortazar está recopilando documentación escrita, gráfica y oral. Para recabar información y testimonios Kortazar estará en el Área de Juventud del Ayuntamiento los martes y los miércoles (09:00-13:30 y 16:00-18:30).

Aborto legearen aurka

Berdintasun Foroak abortoaren legearen aurkako adierazpena osatu du. www.beasain.net webgunean irakur daiteke.

El Foro por la Igualdad ha elaborado un texto sobre el tema de la ley del aborto, el cual se puede leer en la página web www.beasain.net.

Plazako kioskoko zuloak

Plazako kioskoaren behealdeko zuloak metakrilatozko xaflekin estali dira, plaza azpian egiten diren ekintzak euritik eta haizetik babesteko, eta haur txikien segurtasuna bermatzeko.

Los agujeros del bajo del kiosco de la Plaza se han cubierto con placas de metacrilato. Los objetivos de esta obra han sido proteger de la lluvia los actos que se celebran en los bajos de la Plaza y garantizar la seguridad de los más pequeños.

Beste hiru langile kontratatu ditu Beasaingo Udalak



Bizi dugun krisialdiz jakitun, enplegu sorkuntzan burubelarra ari da lanean Beasaingo Udal. Honela, 26/2013 Foru Dekretuari jarraiki, Beasaingo Udalak pasa den azaroaren 14an 4 langile kontratatu zi-tuen (leheng mailako igeltsero bat, bigarren mailako igeltsero bat eta bi peoi igeltserotzan adituak). Lau langile horiek bost hilabetez aritu dira lanean eta beste eginkizunen artean Sagastigoitiko parkean mantentze lanak eta Olarango garbiketa eta hezetasunak kentzeko lanak egin dituzte.

Enplegu bultatzeko helburuarekin jarraituz eta programa berdinaren barruan beste hiru langile berri kontratatu dira: lehen mailako bi igeltsero eta peoi bat. Hauek ere, aurrez langabezian zeuden hiru herritar dira. Pasa den apirilaren 30ean hasi dira lanean eta 5 hilabetez ariko dira. Beraien eginkizunak Udalak kudeatzen dituen beste ekintza batzuk gune publikoetan aurrera eramateaz gain, Olaran pabilioian garbiketa eta hezetasunak kentzeko lanarekin jarraitzea eta Beasain-Arriaran oinezko ibilbidea egokitzea izango dira. Aurrerago, beste zazpi langile ere kontratatuko ditu Udalak.

Dada la situación de crisis que estamos viviendo una de las prioridades del Ayuntamiento de Beasain es el empleo. Siguiendo las pautas del plan de empleo de la Diputación, y en ejecución del Decreto Foral 26/2013, el Ayuntamiento de Beasain contrató a 4 trabajadores. Se trata de un oficial albañil de primera, uno de segunda y dos peones. Sus funciones han sido, el mantenimiento del parque Sagastigoiti y la tarea de limpieza y deshumidificación de Olaran.

El pasado 30 de abril se realizaron otros tres contratos de albañil. Se trata de tres vecinos de Beasain que estaban desempleados. El Ayuntamiento tiene previsto la contratación de otras 7 personas en próximas fechas.

'Irakurri, gozatu eta oparitu'



Irakurzaletasuna bultatzeko helburuz, aurten ere, 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpaina jarri du martxan Udalak. Ekainaren 30era arte, liburategian liburu bat hartu, irakurri, fitxa simple bat bete eta Mirentxu liburudendan nahi den liburua erosteko %25eko beherapena izango da.

Musika festa ekainaren 20an

Ikasturte amaierarekin lotuta, Nazioarteko Musikaren Eguna ospatuko du ekainaren 20an Musika Eskolak, 19:30ean. Gernika pasealekuuan, perkusio taldeak, bandak, akordeoi taldeak eta Narama abesbatzak, estilo guztiako musika joko dute. Amaieran, elkarrekin, *Xalbadorren heriotzean*, *Whatever eta Ken 7* taldearen *Ilargia* abestiak joko dituzte.

Loinatz Musika Eskola celebrará el próximo 20 de junio el Día Internacional de la Música. Participarán más de 100 alumnos y alumnas.



Zuhaitz eguna Arriaranen

Alkartasuna Lizeoko eta Andramendi ikastolako 5. eta 6. mailako 45 ikasle Arriarango Oihan Magikoan bisitan izan ziren Zuhaitz Eguna ospatzen. Bertako zuhaitz espezieak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek.

Musika eta kirol udalekuak

Musika Eskolak musika udalekuak antolatu ditu ekainaren 23tik uztailaren 4ra, 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat (09:30-13:30). 85 euroko matrikula ordaindu behar da (familia ugariak %20ko beherapena izango dute). Izen ematea ekainak 6 baino lehen egin behar da. Kirolegian ere, udalekuen hiru txanda antolatu dituzte 1998 eta 2010 urte bitartean jaiotakoentzat: ekainaren 23tik uztailaren 4ra, uztailaren 7tik 18ra eta uztailaren 21etik 30era (10:00-13:00).

La Musika Eskola ha organizado colonias musicales (entre 3 y 12 años) del 23 de junio al 4 de julio (09:30-13:30). La matrícula costará 85 euros (las familias numerosas tienen descuento del 20%). El polideportivo también ha organizado colonias (1998-2010) en tres turnos: del 23 de junio al 4 de julio; del 7 al 18 de julio; y del 21 al 30 de julio.



Kanpoko igerilekuak prest

Udarekin batera irekiko dituzte kanpoko igerilekuak. Ekainaren 16tik (eguraldiak laguntzen badu, ekainaren 13an irekiko dituzte) irailaren 14ra bitartean egongo dira irekita. Aurtzen, gainera, ordutegi berria izango dute: aste barruan 11:30etik 20:30era eta asteburueta eta jaiegunetan, 11:30etik 20:00etara. Igerilekuo eraikineko terrazan hamak erabilgarri izango dira goizeko 08:00etatik.

Igerilekuo belardian hobekuntza lanak egin dira. «Lurra-en konposaketa ez da egokia eta ondorioz bertan urak ez du ongi filtratzen», dio Jon Alkaiaga kirolegiko arduradunak. Gaia aztertu ondoren, «drainatze sistema bat ipintzea, lurra lantzea eta hazia botatzea erabaki da. Aurtengo udan belardi politaz gozatzea dugu helburu». Alkaiagak aurreratu duenez, 2015eko udaberrian lurra era egokian mantentzeko zulatze-areztatze lanak ere egingo dituzte.

Aurtzen ere liburutegi zerbitzua eskainiko du Udal Bibliotekak igerilekuaren. Argazkian bezalako etxetxoja jarriko dute horretarako. Liburuak eta bideoak maileguan hartzeko aukera izango da. Aldizkariak eta egunkariak ere irakurri ahal izango dira.

Las piscinas exteriores están listas para la apertura de la temporada de baño. Se abrirán el 16 de junio hasta el 14 de septiembre (si el tiempo acompaña, se adelantará la apertura al 13 de junio). Una de las novedades de este año será el nuevo horario: entre semana, de 11:30 a 20:30, y los fines de semana y festivos de 11:30 a 20:00). Las hamacas de la terraza de la piscina, estarán a disposición del público a partir de las 08:00. Se han realizado obras en la zona verde de las piscinas para mejorar el sistema de drenaje.

Por último, este año se instalará una caseta (como la de la imagen) para ubicar la mini biblioteca. En ella se podrán leer periódicos y revistas, y coger libros y videos en préstamo.

Gaztelekuo udako programa

Ekainaren 23tik uztailaren 24ra, 12 eta 18 urte bitarteko nerabeentzat eta gazteentzat egitarau zabala antolatu du Eizu Gaztelekuak. Txapelketak, eskalada, bizikletan paseoa, gynkana, sukaldaritza, hondartzara irteerak... egingo dituzte. Goizetan, 11:00etatik 13:30era astelehenetik ostiralera eta arratsaldetan, astelehenetan eta asteazkenetan 16:30etik 19:00etara. Izen ematea: eizugazteleku@hotmail.com - 658 75 17 84.



• • Nuestro futuro lo tenemos que construir nosotros, la ciudadanía, sin esperar a que lo hagan otros: si no, no lograremos nada • •

tuen, hamabost egunez behin lantzeko.

Nolakok izan dira batzarrak?

J.J. Jende gehien joan den bilera lehenengoa izan zen; potenteena. Eskubide ekonomikoez, eskubide sozialez eta ingurumen eskubideez aritu ginen. Hiru ordu eta erdiko saioak izan ziren, eta denboraz motz gelditzen zirenaren sensazioarekin gelditzen ginen.

M.U. Bigarrenean indarkeria gabeko bizitza libre bat, aniztasun sexuala, jatorri aniztasuna eta aniztasun funtzionala izan genituen hizpide. Eta hirugarrenean, erabakitzeko eskuideaz, hizkuntza eskuideez, parte hartzeaz eta eskuide kulturalez aritu ginen. Borondatea egonez gero, denak bermatzea posible dela erakutsi dugu. Hain zuzen, horixe falta zaie elite ekonomikoaren morroi diren alderdi politikoi: borondatea.

Nortzuk joan zarete bileretara?

J.J. Eragile sindikal eta sozial ezberdinako jendea eta bestelako norbanakoak ere bai. Aniztasun sexuala landu genuen egunean oso ekarpen aberasgarriak jaso genituen herritar batzuen esku. Zuze-nean ukitzen dituen jendearen hitzak entzutea oso hunkigarria izan zen. Beste gai batzuk zuzen-zuzenean ukitzen dituztenak ere dinamikan protagonista izan daitezen nahi dugu; langabetuak edota etxetik bota dituztenak, esaterako.

Gutuna, noizko?

M.U. Ekarpene guztiak jasoko dira orain nazio mailan eta gutunean jasoko dira maiatz amaierarako. Gutuna berretsiko da, nazio mailan aurkeztuko da eta gero herrietan jendarteratuko da.

J.J. Guk biltzen jarraitzen dugu eta taldea irekita dago. Gaietan lehentasunak markatzeko gometsak jarri genituen garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkigun gaietan, uda pasatakoan lantzen jarraitzeko. Web orrialde bat sortuko dugu, etorkizun hurbilean herritarren txokoia izateko.

Gutun Soziala

“Herritarron etorkizuna gerorrek eraiki behar dugu, beste en zain egon gabe: bestela jai dugu”

Promotores sindicales, sociales y ciudadanía han participado en las asambleas de la Carta Social. Ahora se recogerán las aportaciones de todas las asambleas y con eso crearán la Carta Social para junio. La carta se presentará públicamente.

Noiz eta zergatik ikusi zen Gutun Soziala la egiteko beharra edo asmoa zegoela?

M.U. Azkeneko gredaren testuinguruan, krisi deitutako iruzur handi honen aurrean, herritarrok elkarlanean zerbaite egin behar genuela ikusi zen. Herritarron etorkizuna gerorrek eraiki behar dugu, beste en zain egon gabe: bestela jai dugu.

Nola hasi zineten batzarrak iragartzen?

M.U. Talde dinamizatzailea sortuta zegoen azaro ingururako. Abenduan Igartzan egin genuen aurkezpena, gero herri-zherri aurkeztu zen eta gero hasi ginen batzarrak egiten. Hamaika gai zeuden eta hiru batzarretan banatu geni-

Blog

Pronto crearán un blog como punto de encuentro de la ciudadanía.